Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

2026ZAUN0001

2026KO SAN PEDRO ETA SAN MARTZIAL JAIETARAKO KONTZERTUEN KONTRATAZIOA (LOTEKA)
CONTRATACIÓN DEL CONCIERTOS PARA LAS FIESTAS DE SAN PEDRO Y SAN MARCIAL 2026 (POR LOTES)

– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	KULTURA, HEZKUTZA, GAZTERIA ETA KIROL ARLOA / AREA DE CULTURA, EDUCACIÓN, JUVENTUD Y DEPORTES
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2026ZAUN0001

1. XEDEA

Dokumentu honen bidez, Irungo Udalak honako hauek kontratatzeko interesa agertzen du:

1. OBJETO

Mediante el presente documento, el Ayuntamiento de Irun manifiesta su interés en contratar:

1.LOTEA/LOTE 1: **Enpresa**/Empresa: PRODULAM, S.L.
Artista: Chenoa
Data/Fecha: 19/06/2026
Lekua/Lugar: Plaza San Juan
Ordutegia/Horario: pendiente de determinar
Iraupena (gutxienekoa)/Duración (mínima): 59 minutos

1.LOTEA/LOTE 2: **Enpresa**/Empresa: PRODULAM, S.L.
Artista: Zea Mays
Data/Fecha: 20/06/2026
Lekua/Lugar: Plaza de Urdanibia
Ordutegia/Horario: pendiente de determinar
Iraupena (gutxienekoa)/Duración (mínima): 59 minutos

2.LOTEA/LOTE 3: **Enpresa**/Empresa: DEEP DELAY MANAGEMENT, S.L.
Artista: Henry Mendez
Data/Fecha: 27/06/2026
Lekua/Lugar: Plaza San Juan
Ordutegia/Horario: pendiente de determinar
Iraupena (gutxienekoa)/Duración (mínima): 59 minutos

3.LOTEA/LOTE 4: **Enpresa**/Empresa: T&T CONCERTS, S.L.
Artista: Metrika/Brava/Katana
Data/Fecha: 28/06/2026
Lekua/Lugar: Plaza de Urdanibia
Ordutegia/Horario: pendiente de determinar
Iraupena (gutxienekoa)/Duración (mínima): 59 minutos

Atal honetan aipatutako ikuskizun guztiak doakoak izango dira.

Kontratu honetan ez dira sartzen ikuskizunetarako behar diren soinu- eta argi-ekipoak eta langile laguntzaileak. Udalak jarriko ditu adjudikaziodunen eskura, hala badagokio, plegu honetan aurreikusitakoaren arabera.

Todos los espectáculos referidos en el presente apartado serán de entrada gratuita.

El presente contrato no incluye la producción y los equipos de sonido, luces y el personal auxiliar necesario para los espectáculos que será puesto a disposición de las adjudicatarias por el Ayuntamiento, en su caso, conforme a lo previsto en el presente Pliego.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: XIAQ-6FNN-ZJXL-6EC7

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Iñaki Goikoetxea Arrufat TÉCNICO DE CULTURA (05/02/2026 08:15 CET)

2. ENPRESA ADJUDIKAZIODUNEN OBLIGAZIOAK

Obligazio hauek adjudikaziodun guztiei aplikatuko zaizkie, eskainitako loteetan:

- Adjudikaziodunek kontzertua egiteko ekoizpen beharrak emango dizkio Irungo Udalari.

- Adjudikaziodunak arduratuko dira beren loteen ikuskizunak emateaz eta haren funtzionamendu egokiaz, bai kalitateari dagokionez, bai Irungo Udalak ezarritako ordutegiak zorrotz betetzeari dagokionez.

- Adjudikaziodunen ardura izango da beren loteen ikuskizunen komunikazio publikorako behar diren legezko baimen eta lizentzia guztiak eskatzea, jabetza intelektualaren eta egile-eskubideen araudiarekin bat etorriz. Udala libre geratuko da hirugarren batek hasitako edozein erreklamaziotatik.

- Adjudikaziodunek betebeharrak betetzeko behar adina langile kontratatuko dituzte, eta zerga- eta lan-arloko indarreko xedapenak eta Gizarte Segurantzakoak eta laneko arriskuen prebentzioari buruzkoak bete beharko dituzte, langile horiei dagokienez. Era berean, haien ardura izango da langileek segurtasuneko, higieneko eta lan-osasuneko indarreko araudia betetzen dutela bermatzea.

- Adjudikaziodunak izango dira erantzuleak Irungo Udalak ikuskizuna garatzeko haien esku jarritako materialean eta ekipoetan eragin dezaketen edozein kalteren aurrean, eta, hondatuz gero, material eta ekipo horiek konpondu edo birjarri egin beharko dituzte, eta erantzule izango dira, halaber, enpresa adjudikazioduneko langileek gaizki manipulatzeagatik edo beren ekipo teknikoak egoera txarrean egoteagatik sortutako kalte-galeren aurrean.

- Adjudikaziodunen kontura eta arriskura izango dira ikuskizunak egiten diren esparruan edo perimetroan dauden bitartean beren ekipo tekniko eta/edo musikalak zaintzea eta horien segurtasuna bermatzea. Irungo Udalak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik, horiek galdu, lapurtu, apurtu edo hondatzen badira.

- Adjudikaziodunek kaudimen aitortua duen aseguru-konpainia batekin hitzartu beharko dituzte beren jardueraren kudeaketari lotutako ohiko arriskuak eta, bereziki, pertsonei eta gauzei

2. OBLIGACIONES DE LAS EMPRESAS ADJUDICATARIAS

Las presentes obligaciones serán de aplicación a la totalidad de adjudicatarias en los diferentes Lotes ofertados:

- Las adjudicatarias entregarán al Ayuntamiento de Irun las necesidades de producción para la ejecución del concierto.

- Las adjudicatarias se responsabilizarán de la realización y buen funcionamiento de los espectáculos de sus lotes, tanto en lo concerniente a su calidad, como al estricto cumplimiento de los horarios establecidos por el Ayuntamiento de Irun.

- Las adjudicatarias se responsabilizarán de solicitar todos los permisos legales, autorizaciones, y licencias pertinentes para la comunicación pública de los espectáculos de sus lotes, de conformidad con la normativa de propiedad intelectual y de derechos de autor, exonerando al Ayuntamiento de cualquier reclamación iniciada por un tercero.

- Las adjudicatarias contratarán al personal necesario para atender a sus obligaciones y deberán cumplir las disposiciones vigentes en materia fiscal y en materia laboral y de Seguridad Social y Prevención de Riesgos Laborales en relación con dicho personal. Serán asimismo responsables de que el personal cumpla la normativa en vigor en materia de seguridad, higiene y salud laboral.

- Las adjudicatarias se responsabilizarán de cualquier desperfecto que pudiesen ocasionar en el material y equipos puestos a su disposición por el Ayuntamiento de Irun para el desarrollo del espectáculo, así como a reponerlos o repararlos en caso de deterioro, incluyendo los daños y perjuicios causados por una deficiente manipulación de los mismos por el personal de la adjudicataria o por el deficiente estado de sus propios equipos técnicos.

- Serán por cuenta y riesgo de las adjudicatarias la custodia y seguridad de sus propios equipos técnicos y/o musicales durante su permanencia en el recinto o perímetro en que se realicen los espectáculos. El Ayuntamiento de Irun declina todo tipo de responsabilidad en relación con su pérdida, robo, rotura o deterioro.

- Las adjudicatarias quedarán obligadas a concertar con una compañía de seguros de reconocida solvencia, los seguros necesarios y adecuados para cubrir los riesgos típicos inherentes a la

eragindako kalteei, suteei eta lapurretei dagokienez erantzukizun zibiletik eratorritakoak estaltzeko beharrezko aseguru egokiak, 150.000 euroan gutxienez. Era berean, dagozkien primen ordainketa justifikatu beharko dute Irungo Udalaren aurrean, honek hala eskatzen badu.

- Adjudikaziodunek ekitaldiaren berri emateko behar diren materialak emango dizkiote Irungo Udalari (informazioa, argazkiak, kartelak…). Idatzizko eta ahozko komunikazio-elementuek gaztelaniaz eta euskaraz egon beharko dute.

gestión de su actividad y, en particular, aquellos que se deriven de responsabilidad civil, referente a daños a personas y cosas, e incendio y robo, todo ello por un importe mínimo de 150.000 euros. Asimismo, deberán justificar ante el Ayuntamiento de Irun si ésta lo solicita, el pago de las primas correspondientes.

- Las adjudicatarias entregarán al Ayuntamiento de Irun los materiales necesarios para la difusión del evento: información, fotografías, carteles, etcétera. Los elementos de comunicación escritos y orales, deberán ser tanto el castellano como el euskera.

4. IRUNGO UDALAREN OBLIGAZIOAK

Irungo Udalak honako obligazio hauek hartuko ditu bere gain plegu honen xedeko ikuskizunei dagokienez:

- Irungo Udalak enpresa esleipendunen esku jarriko ditu riderrean edo fitxa teknikoan aurreikusitako baliabide material eta pertsonalak, eta ikuskizunaren funtsezko baldintzak. Hauek kontratu sinatu baino lehen Udalari jakinarazi beharko dizkiote.

- Irungo Udalaren kontura izango dira dagozkion ikuskizunak gauzatzeko beharrezkoak diren honako gastu hauek:

  - Udalak ekoizpen-premia gisa berariaz onartutako gastuak (adibidez, cateringa, ostatua, garraioa); eta

  - Ikuskizun bakoitzak ekar ditzakeen egile-eskubideei dagozkien gastuak.

  Plegu honetan berariaz aurreikusitakoa izan ezik, enpresa adjudikaziodunek beren gain hartuko dute ikuskizunaren ekoizpenak eragindako edozein gastu (adibidez, aseguruak).

- Irungo Udalak konpromisoa hartzen du eskura dituen baliabide guztiak erabiliko dituela ikuskizunen arrakasta ziurtatzeko, lekuaren eta edukieraren ezaugarrien arabera. Horretarako, publizitatea jarriko du leku eta bitarteko egokietan, eta bere kontura izango da enpresa adjudikaziodunek ematen dioten material grafikoarekin egiten duen publizitate guztia. Esleipendunek ikuskizunak zabaldu eta horien publizitatea egin ahal izango dute, aurretik Irungo Udalak oniritzia emanda.

4. OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO DE IRUN

El Ayuntamiento de Irun asumirá las siguientes obligaciones en relación con los espectáculos objeto del presente Pliego:

- El Ayuntamiento de Irun pondrá a disposición de las empresas adjudicatarias los recursos materiales y personales previstos en el rider o ficha técnica; y, las condiciones esenciales del espectáculo que deberán entregar al Ayuntamiento con carácter previo a la suscripción del contrato.

- Serán por cuenta del Ayuntamiento de Irun los siguientes gastos necesarios para la celebración de los correspondientes espectáculos:

  - Los gastos expresamente aprobados por el Ayuntamiento como necesidades de producción (e.g. cátering, alojamiento, transporte); y

  - Los gastos relativos a los derechos de autor a los que cada espectáculo pudiera dar lugar.

  Salvo por lo expresamente previsto en el presente Pliego, las empresas adjudicatarias asumirán cualquier gasto derivado de la producción del espectáculo (e.g. seguros).

- El Ayuntamiento de Irun se compromete a emplear todos los medios a su alcance para asegurar el éxito de los espectáculos, de acuerdo a las características del lugar y aforo, colocando a tal efecto la publicidad en los emplazamientos y medios adecuados, siendo a su cargo toda la publicidad que realice y con el material gráfico que las empresas adjudicatarias le suministren. Las adjudicatarias podrán difundir y publicitar los espectáculos, previo visto bueno del Ayuntamiento de Irun.

5. IKUSKIZUNAK ETETEA EDO BERTAN BEHERA UZTEA

Ezinbesteko arrazoiengatik ikuskizuna egiterik ez badago, aldeek beste egun eta ordu bat erabakiko dute ikuskizuna egiteko. Ikuskizuna atzeratzerik ez badago, kontratua bi aldeen artean suntsiaraziko da, eta adjudikaziodunak kontura jasotako diru-kopurua itzuli beharko dio Irungo Udalari, edozein kalte-ordaini uko eginez.

Irungo Udalak, bere aldetik, kontratua ikuskizuna hasi baino lehen bertan behera utzi nahi badu, adjudikazioko zenbatekoaren % 100 ordaindu beharko dio adjudikaziodunari. Hala ere, ikuskizunaren etenaldia arrazoi meteorologikoengatik bada eta etenaldia adosten bada ikuskizunerako aurreikusitako eguna eta ordua baino 48 ordu lehenago, Irungo Udalak kontratuaren prezioaren % 50 ordainduko dio adjudikaziodunari.

Adjudikaziodunek ezin izango dituzte, inola ere, beren aldetik bakarrik eten plegu honen xede diren ikuskizunak. Kontratua zuzenean edo zeharka adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik eteten bada (gaixotasuna, artisten edo taldekideen istripua hartutako konpromisoak betetzea eragozten duena), adjudikaziodunak ikuskizuna egiteko beste egun bat emango dio Irungo Udalari, honek egokitzat jotzen badu. Kasu horretan, indarrean jarraituko dute emanaldi berrirako kontratuan jasotako klausulek, emanaldiaren data izan ezik. Ikuskizuna atzeratzerik ez badago, kontratua bi aldeen artean suntsiaraziko da, eta adjudikaziodunak kontura jasotako diru-kopurua itzuli beharko dio Irungo Udalari, edozein kalte-ordaini uko eginez.

6. HIZKUNTZ BALDINTZAK

Esleipendunek zerbitzua ematerakoan baldintza hauek beteko dituzte:

Ahoz, audioz edo ikus-entzunezkoen bitartez herritarrari ematen zaizkion mezuak eta komunikazioak (megafonia, aurkezpenak, bideoak…) euskaraz, edo elebietan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez (lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz). Kontratua dela eta egindako aurkezpenak, ekitaldi publikoak, prentsaurrekoak eta antzekoak modu berean egingo dira. Haur eta gazteei zuzendutakoak euskara hutsez egingo dira.

Publikoarentzako idatzizko komunikazioa (prentsa oharrak, kartelak, errotuluak, sare sozialak…) euskaraz edo bi hizkuntzetan egingo da euskarari lehentasuna emanez (euskarazkoa goian, ezkerraldean, handiago edo letra lodiz; eta gaztelaniazkoa behean, eskuinean, txikiago edo letra arruntaz).

5. SUSPENSIÓN O CANCELACIÓN DE LOS ESPECTÁCULOS

Si como consecuencia de causas de fuerza mayor el correspondiente espectáculo no pudiera ejecutarse, las partes decidirán una nueva fecha y hora para la realización del espectáculo. En caso de que no fuera posible el aplazamiento del espectáculo, el contrato se resolverá entre sus partes, viniendo obligada la adjudicataria a reintegrar al Ayuntamiento de Irun las cantidades que hubiera percibido a cuenta y renunciando a cualquier indemnización.

En el caso en que el Ayuntamiento de Irun quisiera, de manera unilateral, resolver el contrato antes del inicio del espectáculo, deberá abonar a la adjudicataria el 100% del importe de adjudicación. Ello no obstante, si la suspensión del espectáculo fuera consecuencia de causas meteorológicas y la suspensión se acordase con, al menos, 48 horas de antelación a la fecha y hora prevista para el espectáculo, el Ayuntamiento de Irun abonará a la adjudicataria el 50% del precio del contrato.

Las adjudicatarias no podrán, en ningún caso, suspender unilateralmente los espectáculos objeto del presente Pliego. En caso de suspensión por causas directa o indirectamente imputables a la adjudicataria (e.g. enfermedad, accidente de los artistas o miembros de su grupo que impidan cumplir los compromisos adquiridos), la adjudicataria proporcionará al Ayuntamiento de Irun, si este lo considera oportuno, nueva fecha para la realización del espectáculo, en cuyo caso se mantendrá en vigor las cláusulas del correspondiente contrato para la nueva actuación, con excepción de la fecha de la misma. En caso de que no fuera posible el aplazamiento del espectáculo, el contrato se resolverá entre sus partes, viniendo obligada la adjudicataria a reintegrar al Ayuntamiento de Irun las cantidades que hubiera percibido a cuenta y renunciando a cualquier indemnización.

6. CONDICIONES LINGÜÍSTICAS

Las adjudicatarias deben prestar el servicio cumpliendo las siguientes condiciones:

Los mensajes y comunicaciones orales, de audio o audiovisuales (megafonía, presentaciones, videos…) destinados al ciudadano/a se realizarán en euskera o en bilingüe, dando prioridad al euskera (primero en euskera y después en castellano). Las presentaciones, actos públicos, ruedas de prensa y similares relacionadas con el contrato se realizarán de la misma manera. Los mensajes destinados a niños/as y jóvenes se realizarán sólo en euskera.

La comunicación escrita destinada al público (notas de prensa, carteles, rótulos, redes sociales…) se deberá realizar en euskera o en bilingüe dando prioridad al euskera (el euskera arriba o a la izquierda o en negrita; y el castellano abajo, a la derecha, más pequeño o no

Kartelak, panelak, errotulu eta hizkuntz paisaia euskaraz edo ele bietan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez (euskarazkoa goian, ezkerraldean, handiagoa edo letra lodiz; eta gaztelaniazkoa behean, eskuinean, txikiago edo letra arruntaz).

Los carteles, paneles, rótulos y paisaje lingüístico se realizarán en euskera o en bilingüe dando prioridad al euskera (el euskera arriba o a la izquierda o en negrita; y el castellano abajo, a la derecha, más pequeño o no negrita).

Jaialdian lanean arituko diren enplegatuek testua edo edozein informazio daraman identifikaziorik (txartela, plaka…) edota uniformerik balute, testu hori euskaraz edo ele bietan egongo da.

Las identificaciones que lleven los empleados (tarjeta, placa…) y/o uniformes que incluyan texto o cualquier información, estarán en euskera o en bilingüe.

Kontratu hau dela eta sortzen diren publizitate kanpainak, eslogan eta izendapen berriek (zerbitzuak, guneak…) euskaraz edo ele bietan (euskara lehenetsiz) egin beharko dira. Euskarazko marka, lelo eta esloganak hizkuntz horretan bertan sortuko dira, gaztelaniaren itzulpen hutsa ekidinez.

Las campañas publicitarias, eslóganes y nuevas denominaciones (servicios, centros…) generadas por este contrato deberán realizarse en euskera o en bilingüe (priorizando el euskera). Las marcas, lemas y eslóganes en euskera se crearán en esa misma lengua, sin que sean una mera traducción de la versión en castellano.

Enpresetako solaskideek udal arduradunekin aritzeko ahoz zein idatzizko euskarazko maila nahikoa izan beharko dute.

Los interlocutores de las empresas con los responsables municipales deben tener conocimiento de euskera suficiente para llevar a cabo esta interlocución, tanto a nivel oral como escrito.

Kontratatzaile eta kontratistaren arteko komunikazio idatzien euskarriak euskaraz edo ele bietan lan egiteko prestatuak egongo dira.

Los soportes para las comunicaciones escritas entre el contratador-contratista deberán estar preparados para trabajar en euskera o en bilingüe.

Kontratuari lotuta, udalari entregatu behar zaizkion dokumentu ez publiko edo barneko guztiak, hala nola programazioa, fakturak, memoriak... euskaraz edo ele bietan idatzita egongo dira, euskarari lehentasuna emanez (euskarazkoa goian, ezkerraldean, handiagoa edo letra lodiz; eta gaztelaniazkoa behean, eskuinean, txikiago edo letra arruntaz).

Todos los documentos no públicos o internos relativos al contrato, como programación, facturas, memorias… que deban entregarse al Ayuntamiento se deberán realizar en euskera o en bilingüe dando prioridad al euskera (el euskera arriba o a la izquierda o en negrita; y el castellano abajo, a la derecha, más pequeño o no negrita).

Kontratatzen den zerbitzuarekin lotuta hizkuntza batean edo bestean idatz daitezkeen webgune domeinu eta izenek, mezu elektronikoek eta abarrek euskaraz egon beharko dute gutxienez.

Los dominios y nombres de páginas web, correos electrónicos, etc. vinculadas al servicio objeto del contrato que sean susceptibles de ser escritos en una lengua u otra, como mínimo deberán estar en euskera.

Kontratuari atxikitako gainontzeko langileek edo azpikontratatzen den beste edozeinek (segurtasun-enpresa eta abar) euskararen ezagutza-maila nahikoa dutela zerbitzu egokia eman ahal izateko. Ordezkapenak egin edo langile berriak kontratatu behar direnean alderdi hori kontuan izan beharko da. Kontratua kudeatzeko enpresak langileei formazioa emango balie, euskaraz edo ele bietan beharko du.

El resto del personal adscrito al contrato o cualquier otro que se subcontrate (empresa de seguridad, etc.) tendrá el conocimiento del euskera adecuado para dar el servicio de forma adecuada. En el caso de sustituciones o contratación de nuevo personal se tendrá en cuenta este aspecto. La formación que la empresa imparta a los trabajadores para la gestión del contrato será en euskera o bilingüe.

Hizkuntz Baldintza klausula honek klausula administratibo berezien pleguko (KABP) KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK atalean hizkuntza ofizialtasun bikoitzari buruz xedatutakoa osatzen du. Esleipendunek beti ere Irungo Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauei buruzko udal ordenantza bete beharko du, eta baita euskararen erabilera normalizatzeko plana ere. Kontratuaren arduradunari dagokio hizkuntz baldintza hauen kontrola eta jarraipena.

Esta cláusula de condiciones lingüísticas complementa lo establecido respecto a la doble oficialidad lingüística en la relativa a los DERECHOS Y OBLIGACIONES DEL CONTRATISTA del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares (PCAP). Las adjudicatarias deberán cumplir la ordenanza municipal sobre normas para la normalización del uso del euskera en el ayuntamiento y municipio de Irun, así como el plan de normalización del uso del euskera. Corresponde al responsable del contrato el control y seguimiento de estas condiciones lingüísticas.

7. JURISDIKZIOA

Edozein auzi gertatuz gero, kontratazio-organoaren egoitza sozialeko epaitegiek ebatziko dute.

7. JURISDICCIÓN

Cualquier cuestión de carácter litigioso será resuelta por los Juzgados del domicilio social del órgano de contratación.